

'AEK Txotx'era 1.700 bat lagun dira etortzekoak aurten

■ Euskaltegietako jendea dator sagardotegietan afaltzera ■ Tilosetan karpa jarriko dute afal aurreko eta ondorengo festarako ■ Afari txartelak AEKn daude salgai: 943 557801 ■ Otsailaren 2an izango da.

AEKk sagardotegietan afaria antolatzen du Euskal Herri osoko ikasleekin, urte batean Astigarragan eta hurrengoan Hernanin. Aurten Hernaniri dagokio txanda. Aurtengoarekin badira sei urte AEK Txotx hasi zena.

Afariak 17 euro balio ditu eta txartelak salgai daude Hernaniko AEKn.

EGUN OSOKO FESTA

Goizeko 11:00etan artisau azoka jarriko dute, egunari hasiera emateko. Artisau azoka goiz eta arratsalde egongo da jarria, eta 15en bat artisau datoz. Arratsaldeko 17:30etan bakailo lehiaketari emango diote hasiera Tilosetako karpan. Dagoeneko 9 apuntatu dira, baina, listak irekiak daude. Zortzietan sagardotegietara abiatuko da jendea, eta gauerdirako bueltan izango dira, berriz ere, berbena hasiko baita Laiotzekin. Ondoren Hernaniko Disko jartzai-leak (DJ) ariko dira goizeko 05:00ak alderarte: DJ Talo eta Sound Sistem.



Hernaniko ikasleak bakailo lehiaketan, orain bi urteko AEK txotxean (Argazkia: AEK-k utzia)

15 SAGARDOTEGI

Hernani eta Astigarragako hamabost sagardotegietara joango dira 1.700 lagunak. Afari aurreko eta ondorengo festa Hernanin bada, jende gehiago animatzen omen da

Astigarran denean baino. Gure herriak parrandarako fama nonbait, eta ez du inork aukerarik galdu nahi izaten.

Jenderik gehiena autobus organizatuetan etorriko da, baina, bada kotxean edo tre-

nez etortzen denik ere. Afaritarako zita Sagastialden izango dute guztiek, autobusa hartu eta bakoitza dago-kion sagardotegira joateko. Arratsaldeko 20:00etarako Sagastialden behar dute. □

Gaur irekiko dituzte Tilosetako komun publikoak

Tilosetako komun publikoak obratan egon dira joan den aspaldian. Gaur dituzte irekitzekoak, berriz ere, eguerdiko 12:00ak aldera. Tilosetara begira, eskaileraz eskubira gelditzen direnak gizonetako komunak izango dira; eskaileraz ezker aldera gelditzen direnak, berriz, emakume eta ezinduenak. □



MAHAI TENISA

Partiduak Hernanin

MAHAI teniseko zenbait partidu Hernanin jokatuko dira gaur. Liga Autonomikoan, Hernani-Easok Leka Enearen kontra jokatuko du. Partidua kiroldegian jokatuko da, gaur arratsaldeko 16:00etan hasita. Gipuzkoako Ligan, berriz, Irunen jokatuko dira bi partiduak: lehengo mailan, Hernani-Easo ari-tuko da Luberriren kontra, eta bigarrenean, Leka Enearen kontra. □

ESKUBALOIA

Elorrio-Hernani

HERNANIKO eskubaloitza Elorriora joango da puntu bila. Hernaniarrak fuerte dabilta eta elorriotarrak, berriz, justu antxa. Beraz, bi puntuak ekartzeko aukera dezenteak dituzte. Partidua gaur arratsaldeko 16:45etan hasiko da. □

FUTBOLA

Regionalak partidua gaur, Zubipen

CD HERNANIKO bost taldek gaur jokatuko dituzte ligako partiduak. Eta bostetik bik, Zubipen. Eskualde mailako taldeak (regionalak) Danak-Mariaren Bihotza taldearen kontra jokatuko du, 16:00etan. □

ERRUGBIA

Durango - Hernani, oso partidu zaila

SENIORREK liderraren kontra jokatuko dute gaur, 16:30etan. Durangok ondo jokatzeaz gain, oso kanpo berezia du eta etxeko ia partidu denak irabazten ditu. Hala ere, hernaniarrak ondo ari dira jokatzen eta durangarrei gauzak estu jartzera dijoaz. Bestalde, jubentzek Bera-Beraren kontra jokatuko dute Anotetan, 15:00etan. □

SAGARDOTEGIA

IPARRAGIRRE

HERNANIKO SAGARDOA OSIÑAGA AUZOAN HERNANI

TEL. 943 55 03 28

GAUR ZABALTZEN DUGU TXOTX DENBORALDIA
Asteazketatik larunbatera zabalik. Larunbat eguerdian enkarguz.

IRUBIDE JATETXEA

Epele auzoa 7 - HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

Xenon Computer

ESKAINTZAK
kotxerako osagarriak
antenas
esku libre fijoak
instalazio gabeko
esku libreak
soporteak

Movistar Activa
Mobiletan
eskeintza bereziak:
ALCATEL
87,15 euro
(73,12 deietan).
e-moción

Telemar

ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

BOLEIBOLA

Hernani Logroñora gaur, Liga irabazteko beste pauso bat ematera

■ Gaurko partidua eta hurrengoa irabazita, Liga ia eskura du Hernanik.

HERNANIARRAK txapela kentzeko moduko denboraldia egiten ari dira eta gaur beste marka bat jartzera dijoaz Errioxara. Alfred Cerdanen mutilen 13 partidu jokatu eta 13ak irabazi dituzte; datozen bi partiduetan Liga erabakita utzi lezateke.

Boleibol delegatuak gaurko partidua gogorra izango dela ikusten du "Kontua izan talde guztiek Hernaniri irabazi nahi diotela, eta errioxarrak izan dira aurreneko bueltan hernaniarrak gehiena estutu zituztenak".

Partidua arratsaldeko 16:00etan hasiko da. □



Hernaniko boleibol jokalaririk batzuk bankillean.

JASOTA BEZALA

Latsunbe-Antziola ez da beharrezkoa

Egia da guk ere ontzat eman dugula aurretik hartutako zenbait erabakietan. Baina, okerrak ere zuzendu litezke eta zintotasunez esan behar dugu Latsunbe eta Antziola lotuko dituen bidea egitea kaltegarria iruditzen zaigula eta gaur ez dala beharrezkoa. Horregatik, batez ere, idatzi honek autokritikaren balioa du.

Indarreko arautegi urbanistikoren arabera, badaude erdiguneko trafikoa irteera emateko beste soluzio hobekoak. Eta, era berean, Antziola eta herriaren erdia hobeto

lotu nahi bada, soluzioa ez da zaila ezta garestia ere.

Baina, pena litzateke Latsunbetik Anziolara bitarteko paseabidearen baldintza ambientalak hondatzea, guztiz penagarria litzateke parke publikoa bitan zatitu beharra eta bertako zuhaitz multzo bat bota beharra, hain beharrezkoa ez dan karretera egiteagatik. Milaka hernaniarrek erabiltzen duten txokoa, natura baldintza berebizikoak dituen, ezin da arrazoi sendorik gabe errepide batez ebaki.

721.000 euro (120 miloi pezeta) hoiekin egin liteke beste gauza-

rik, gainera. Parkea zabaltzeko lurra erosi, zuhaitz berriak landatu, edo tranbia zanaren ibilbidea txukundu eta irikitze lanarekin segi, esate baterako.

Udalak du, jakina, hitza. 2002ko presupuestoen eztabaiadaren baitan, gaia sakonean aztertu eta zuzendu beharko lukeela diogu guk. Guk ez dugu Latsunbe-Antziola enlazearen beharra ikusten. Gauzak dauden bezala utzi nahi ditugu.

Iñaki Arratibel
EA-EA Jren izenean,

OSASUNA ZAINTEKO IKASTARROAK



Txema Pierola hitzaldia ematen, ostegunean Biterin.

"Gaitza moztu beharrean, jatorria aztertu behar da"

■ Gaitzak zerbaiten ondorio direla esan zuen Txema Pierolak, eta gorputzak garbitzeko behar dituela.

SUMENDI taldeko Txema Pierolak Bizitzaren Medikalizazioari buruz hitz egin zuen. Bere hitzetan sistemari (osasun sistemari, botika etxeei...) interesatu egiten zaio gaitzak egotea, eta jatorria aztertu beharrean gaitza etetzen da. Gor-

putzak gaitzak beharrezko dituzte garbitzeko, eta gaitza etenda beste gaitz gogorrago batekin aseko du behar hori. Bere ustez gaitzak pasa egin behar dira, eta erremedioa jatorria tratatzean dago: estresa gutxitu, elikadura hobetu... □

Afaria eta 'Mal de ojo' taldearen kontzertua gaur Arizmendin

ARIZMENDI jatetxean afari eta kontzertuak egiten dituzte noizean behin. Gaur *Mal de Ojo* taldeak joko du afal ostean. Afaria 21:30etan hasiko da. □

Musika Bandaren kontzertua bihar udaletxeko arkupeetan

Bihar, igandea, kontzertua emango du Hernaniko Musika Bandak. Zortzi obra eskainiko dituzte Manuel Sagarnak zuzenduta. Egurdiko 13:00etan. □

ZINEA BITERIN

'Dr. Dolittle II' eta 'Spy game' asteburuan

Heldu eta umeentzat zinea gaur. *Dr. Dolittle II*, 17:00etan. *Spy game* 19:30 eta 22:30etan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalarri anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
- ▶ Gaez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802

IRAGARKI MERKEAK

Asteleheneretik ostiralera, goizetan umea zaiduko duen pertsona bat behar dugu. Donostiako Aiete auzoan. Astean 35 ordu eta irakasle-egutegia. Interesatuak deitu 943 314784 (Bakarne)

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK							
FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	PELOTA	PELOTARIAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Hernani-Gure Txoko	Zubipe	Bihar, 16:30	Euskal H. Txap			
Emakun. liga	Tolosa-Hernani	Usabal	Gaur, 15:45	Paleta goma neska	Burutaran-Valero/Hoz-Lujanbio	Kirol.	Gaur, 16:00
1. Erregionala	Hernani-Mariaren B.	Zubipe	Gaur, 16:30	Eskuz binaka jub.	Alvarez-San Sebastian/Txaruta	Kirol.	Gaur, 17:00
Gazteak. L. Naz.	Herrera-Hernani	Herrera	Gaur, 15:30	Paleta goma neska	Lagunartea/Manzisidor-Martinez	Sestao	Bihar, 10:30
Gazteak Ohor.	Arrasate-Hernani	Abxabalpe	Bihar, 15:45	Eskuz binaka kad.	Zaramaga/Mikel Arrieta	Gasteiz	Gaur, 15:30
Kadet. Ohor.	Hernani-Herrera	Zubipe	Gaur, 11:00	Gipuzkoako Txap			
Kadet. 2.maila	Orioko-Hernani	Antilla	Bihar, 16:00	Eskuz binaka inf.	Apeztebea-Ezeiza/Antiguo	Kirol.	Gaur, 17:30
Haurrak Ohor.	Ostadar-Hernani	Mitxelín	Gaur, 15:45	Eskuz binaka inf.	Zabala-Aizpitarte/Txapagain	Kirol.	Gaur, 18:00
ESKUBALOI A	TALDEAK	NON	NOIZ	Eskuz binaka inf.	Arregi-Barrantes/Aitza	Kirol.	Bihar, 10:30
Euskadiko L.	Elornio-Hernani	Elornio	Gaur, 16:45	Udaberri Txap			
WATERPOLOA	TALDEAK	NON	NOIZ	Paleta motza	Ugarretxena-Galarza/Zarautz	Kirol.	Gaur, 19:00
Eusk.H. Liga	Portugalete-Hernani	Port.	Gaur, 15:00	Eskuz binaka kad	Ezeiza-Gorrotategi/Zazpituri	Kirol.	Bihar, 11:15
Eusk.H.L. 2.maila	Barakaldo-Hernani	Barak.	Gaur, 16:00	Eskuz binaka kad	Apalaza-Zurutza/Arrebaleta	Kirol.	Bihar, ondore
ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ	Eskuz binaka jub.	Irazustabarrena-Elizalde/Arrebaleta	Kirol.	Bihar, ondore
Seniorra. 1.maila	Durango-Hernani	Durango	Gaur, 16:30	Gip. Trikete Txap			
Jubenila. Euskal	Bera Bera-Hernani	Anoeta	Gaur, 15:00	Eskuz binaka kad.	Jon Gurrutxaga-Ramuntxo	Gaska	Gaur, 16:00
Kadetea. Euskal	Al. SS-Hernani	Bidebieta	Gaur, 10:00	Eskuz binaka kad.	Jon Apaolaza-Mikel Zurutuza	Gaska	Ondoren
Infant. G. Liga	Hernani-Zarautz	Landare	Gaur, 16:30	Eskuz binaka jub.	Xabi Iradi-Jon Elizalde	Gaska	Ondoren
Alebin. Lagunar.	Hernani-Irun	Landare	Gaur, 10:30	Eskuz binaka	Gaskon-Aizpuru/Beharzena	Gaska	Ondoren
BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ				
1.Autonomika	UPNA-Hernani	Iruña	Gaur, 16:30				

HERNANI

KixKal Taberna
naqusia 15
Egunero pintxo aukera ederra. Asteburuetan pintxo beroak ere bai.

Urdin

Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar

MERKEALDIETAN GAUDE

URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia

19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Ford

Antziola-Motor
Zorionak eta urte berri on!

Ikusi al duzu Mondeo berria?

Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI